

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3098

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 13koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bitartez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua prestatu du, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera izapidetu behar da.

Lege horretan xedatutakoa betetze aldera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, 2022ko uztailaren 15ean, agindu bat eman zuen, aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera emateko. Era berean, 2023ko otsailaren 6an, agindu bat eman zen, dekretu-proiektuaren testua aurrez onartzeko, haren artikulua idatzi ondoren.

Aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoiei eragiten dieten xedapen orokorrak jendaurrean jarriko dira, eta gauza bera egingo da xedapenen izaerak hala eskatzen duenean.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da 20 egun baliodunetz, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko uztailaren 15eko Aginduan (aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona) xedatutakoarekin bat etorritik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 16.a) artikuluari dago-kionez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– , Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea hogeita (20) egun baliodunetz, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko aukera egon dadin, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartea, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> helbidean, edo, bestela, aurrez aurre, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartea, Vitoria-Gasteiz), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuren batean, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 13a.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
MARÍA ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO.